

Balio proposamena

Gure proiektu honetan, aurkeztuko dugun produktu edo asmakizun berria, zakarrontzi berezi bat izango da, ikusgarria eta berritzailea, mundu osoari bira emango diona.

Zakarrontzi honen izena "Recycla 1000" izango da, geroago beste eratorri batzuk ere aterako dira, hobekuntza batzuekin, estetika aldetik eta erosotasun aldetik aldatuak izango direnak.

- Zergatik da berezia zakarrontzia konplexu eta berri hau?

Gure etxean sortutako zaborrak, bai organikoak, bai plastikoak eta/edo bestelakoak... (edozein motatako zaborra), zakarrontzi honetara botatzean, berak bakarrik sailkatuko du, eta, zabor motaren arabera, bere barneko deposito ezberdinetan sailkatuko ditu.

Proiektu berri honek, garbitasunean eta erosotasunean hobekuntzak emango dizkigu, eta ez hori bakarrik, kutsadura murrizten ere lagunduko gaitu.

- Gure lana?

Lan bakarra izango genuke, honen depositoak betetzean, poltsak (itxita egongo dira gainera, erosotasunerako eta garbitasunerako) kontenedoreetara eramatea.